

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Lehenik eta behin argi eta garbi zehaztu behar dugu zein harreman mota sortu nahi dugun bezeroen eta enpresen artean.

Gure kasuan bezeroekin dugun harreman mota automatizatua da web orrialde baten bidez delako eta harreman pertsonala ere, hau da laguntza pertsonala bezeroak enpresako ordezkari erreal batekin komunika daiteke, gure kasuan telefonoz argitzen ditugu bezeroen zalantzak, telefonoaren beste aldean pertsona bat egotea oso garrantzitsua da segurtasuna ematen duelako eta humanitate itxura ematen dio enpresari. Gainera gure enpresako ordezkari batek harreman espezifikoa izango du bezero jakin batekin, harreman hori epe luzean zehar eman ohi da.

